

FAMILIA GAUR EGUNGO HAUR LITERATURAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Corres, Benito, Elena

ZUZENDARIA: Etxaniz, Erle, Xabier

2019-2020

LAPURPENA

Ikerketa lan honetan gaur egun dauden familia eredu desberdinen eta hauek haur literaturan duten presentziaren berri eman nahi da. Hainbat galdera bururatzen dira gai honen inguruan hitz egitean, esaterako, familia mota guztiek onarpen sozial berdina duten, gizartearen errealitate soziala haur literaturan islatzen den, islapen hori nolakoa den... Familia mota ezberdinak beti existitu izan dira, ipuin tradizionaletan umezurtzen presentzia nabaria da, eta 1800 eta 1900 mendeetako literaturan, zenbaitetan, familia gurasobakarrak azaltzen dira liburuetan. Hala ere, familia tradizionalaren presentzia nagusitzen zen. Gaur egungo egoera aztertzen badugu, familia nuklear funtzionalaren nagusitasuna topatuko dugu bai gizartean, bai haur literaturan. Baina beste familia mota gehiago daude, hedatuak, homoparentalak, berreraikiak, pertsona bakarreko gunek eta abar. Familia mota hauek ahotsa eta aitorpena behar dute. Haurrak etorkizuneko gizartea osatuko dutela pentsatuz, familia aniztasuna haur literaturan irudikatzea arlo garrantzitsua da, txikitatik familia mota desberdinak daudela normalizatzeko eta guztiak errespetu berdinarekin ikusteko. Egun, badaude aniztasun familiarra kontuan hartzen duten ipuinak baina ikusitakoaren arabera, gehienetan, gai nagusia familiaren nolakotasunak azaltzean datza. Hau kasu batzuetan ondo dago, baina beste batzuetan desberdina izatearen etiketa jartzen zaiola nabarmentzen da. Horrez gain, lanean txertatzen diren ipuinen zerrendei esker, sarritan familiaren ardura emakumearen gainean erortzen dela ikusi ahal izan dugu, balio tradizionalak indar handia dutela oraindik bermatuz. Ukaezina dena familiak pisu handia daukala da. Gizarte honetan familiaren papera oso garrantzitsua da, gure nortasuna honen baitan eraikitzen dugu.

RESUMEN

En la presente investigación se quieren dar a conocer los distintos tipos de familia y la representación que estas tienen en la literatura infantil. Se nos ocurren varias preguntas al tratar este tema, como por ejemplo, si todas las familias tienen la misma aceptación social, si se refleja la realidad social en la literatura infantil, como es ese reflejo... Siempre han existido tipos de familias diferentes, en los cuentos tradicionales la presencia de niños huérfanos es notable y en la literatura de los siglos 1800 y 1900 hay veces que en los libros aparecen familias monoparentales. De todos modos, destacaba la presencia de la familia tradicional. Si analizamos la situación de hoy en día, nos encontraremos con el predominio de la familia nuclear funcional tanto en la sociedad como en la literatura infantil. Pero existen más tipos de familia como la extendida, la homoparental, la reconstruida, la unipersonal, etcétera. Este tipo de familias necesitan voz y reconocimiento. Pensando que los niños conformarán la sociedad del futuro, reflejar la diversidad familiar en la literatura infantil es un aspecto importante para que desde pequeños normalicen que hay tipos de familias diferentes y que las traten a todas con el mismo respeto. Hoy en día hay cuentos que tienen en cuenta la diversidad familiar, pero según lo visto, la mayoría de las veces el tema principal trata en explicar las características de la familia en cuestión. Esto está bien en algunos casos, pero en otros se nota que se le pone la etiqueta de distinto. Aparte de esto, gracias a las listas de cuentos que se han incluido en este trabajo, hemos podido observar que a menudo, la responsabilidad de la familia recae sobre la mujer, afirmando que los valores tradicionales todavía tienen mucha fuerza. Lo que es indiscutible es que la familia tiene mucho peso. En esta sociedad la familia tiene mucha importancia, dentro de esta construimos nuestra identidad.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. JUSTIFIKAZIOA	5
3. MARKO TEORIKOA	7
3.1 Familia	7
3.2 Familia haur literaturan	12
4. HELBURUAK	17
5. METODOA	18
6. EMAITZAK	19
6.1 Liburu orokorrak	19
6.2 Liburu espezifikoak	28
7. ONDORIOAK	33
8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	35
9. ESKERRAK	35
10. ERREFERENTZIAK	36
11. ERANSKINAK	39
11.1 → 1.eranskina: Familia haur literaturan	39
11.2 → 2. eranskina: Liburuen azterketa fitxak	41
Liburu orokorrak	41
Liburu espezifikoak	43
11.3 → 3. eranskina: Liburuen zerrendak	44
11.3.1 Liburu orokorren zerrenda	44
11.3.2 Liburu espezifikoaren zerrenda	54

1. SARRERA

Argi dago azken mendean gizartea izugarri aldatu dela eta horrekin batera familia. Familia mota desberdinak bereiztea eta haur literaturan aniztasun horren islapena ezagutzea zen jakin-min nagusia ikerketa honetan. Honen inguruan eskuratutako informazioa argi gelditzeko atal desberdinetan bereizten da lan hau.

Lehenik eta behin justifikazioa azaltzen da, familia gaur egungo literaturan ikerketa gaia aukeratu izanaren argudioak argitzen dituenak. Ondoren, marko teorikoa dator, honetan gaiaren puntu garrantzitsu eta klabeak azaltzen dira arloaren egoera irudikatuz. Segidan lanaren helburuak zehazten dira eta ikerketa aurrera eramateko erabili den metodoa azaltzen da. Jarraian, ikerketaren emaitzak aurkezten dira marko teorikoan islatutakoarekin konparatuz. Bukatzeko, ikerketa lana egin eta gero ateratako ondorio akademikoak zein pertsonalak komentatzen dira, ostean, topatutako mugak eta hobetzeko proposamenak partekatuz. Erreferentziak eta bibliografia lana ixten dute. Hauetan lana eraikitzekeko beharrezkoak izan diren iturriak zehazten dira eta lanean zehar espezifikatutako informazio gehigarria aurkitzen da.

2. JUSTIFIKAZIOA

Gizartea etengabeko garapenean dago, garraioa, bizitzeko era, emakumearen rola... alderdi asko dira aldatu eta eboluzionatu direnak. Horietako beste bat familia da, egun familia mota desberdinak bereizten dira, baina guztiek ez dute onarpen eta errespetu berdina jasotzen. Lan honetan familia eredu desberdinen berri eman nahi da eta hauek haur literaturan zein presentzia duten frogatzea. Horrez gain, presentzia horren nolakotasuna aztertuko da familia eredu desberdinak islatzeko modu egokienak zeintzuk diren topatzeko. Umeen jokabidea askotan gizartearen isla da eta heziketa da jokabide zaharkitu, errespetugabe eta eztabaidagarriak eraldatu eta desagerrarazteko bide bakarra.

Nire haurtzarora lekualdatuz, ez dut gogoratzen LGTB kolektiboaz hitz egiten zuen edo islatuta ikusten zen ipuinik, marrazki biziduneko telesailik edo filmik. Eskolan, familiari buruz hitz egitean, ama, aita eta seme-alabez osatutako batez hitz egiten zen eta beste eredu bat aipatzearen gurasoak dibortziatuak egon zitekeela esaten zen. Praktiketara ikusi izan ahal dudana, hau pixka bat aldatzen ari da baina oraindik bide luzea gelditzen da. Gainera, eskola publikoen kulturantzitasuna kudeatzea ez da erraza beti. Guraso batzuk ez dute nahi haien seme-alabek eredu tradizionalatik edo haien erlijioen dogmatik ateratzen diren errealitateak ezagutzea. Guzti hau kontuan

izanda, gai honen aukeraketa haur literaturan kolektibo minoritarioen islapena, kasu honetan, familia eredu desberdinen irudikatzea, aldatu den ikustea izan da motibaziorik nagusiena. Honen haritik, etorkizuneko irakasle moduan, familia aniztasunaren inguruan informazio gehiago eskuratzea oso baliagarria iruditzen zait eredu desberdinak zehaztasunez erakusteko. Eta errealitate aniztasun hau adierazten duen haur literatura zerrenda eraikitzea, aberasgarria.

Saramagok nobel saridunak behin literaturak ez zuela ezertarako balio esan omen zuen. Ados nago berarekin alde batean, baina bestean, literaturak gauza askotarako balio duela esango nuke. Literaturari esker, eguneroko bizitzatik aldendu gaitzke fantasia eta irudimenaren bitartez. Literaturari esker, mundua ezagutu ahal dugu. Literaturari esker, pertsonen arteko harremanak jaio daitezke. Literaturari esker, gure hiztegia handitzen dugu. *La estación azul* irrati saioaren leloak esaten duen moduan “Quien lee vive más”.

Haur literaturaren bitartez, beraz, esperientzia anitzak bizi ditzakete umeeek. Literaturak mezu asko helarazi ditzake eta helarazten ditu. Haur literatura egiten duen autoreak esaldi baten hitz bakoitza zaintzen du, tipografia, irudia, kolorea... Detalle bakoitzak balio narratibo handia eduki dezake eta hauen bitartez errealitate mordo islatu daitezke, familia aniztasuna, kasu.

Argi dago inoiz ez duguna entzun edo ikusi arraroa suertatuko zaigula lehenengo momentuan, beldurra sentitu dezakegu, beharbada, mirestea liteke edo nazka sentitzea. Hau gertatzen zaigu existitzen diren baina errepresentazio gutxi duten errealitate batzuekin.

Zer gertatuko litzateke ipuinetan ama beti sukaldatzen agertu beharrean aita agertuko balitz edo bi ama ikusiko bagenu edo ume protagonista beltza izango balitz... Komunikabideek botere handia daukate gure balio eta arau sozialen eraikuntzan. Baina arrazoi berdinatik gure aliatuak bihurtu daitezke egoerari buelta emateko. Haur literatura dibertsioa da, baina errealitate desberdinak ikusteko bidea baita.

3. MARKO TEORIKOA

3.1 Familia

Gaian murgildu baino lehen familia kontzeptua argi utzi behar da. Gertuko hitza eta kontzeptua denez honi buruz hitz egitea eta hau definitzea erraza iruditzen zaigu. Baina errealitatea familia hitzak ñabardura asko gordetzen dituela da.

RAE-n bi definizio ematen dira; lehenengo adiera “grupos de personas emparentadas entre sí que viven juntas.” da eta bigarrena “conjunto de ascendientes, descendientes, colaterales y afines de un linaje.” (RAE, 2020).

Baina familia adierak konnotazio gehiago ditu eta horrela adierazten da Eustaten:

Familia pertsona multzo bat da; oro har, pertsona horiek ahaidetasun-harremana izaten dute euren artean, odolezkoa edo ezkontzaren ondoriozkoa (gradua gorabehera), eta elkarrekin bizi dira etxebizitza berean. Etxebizitzan lo egiten duten mirabeak eta familia erregimenean dauden ostalariak ere familia barruan sartzen dira. Halaber, bakarrik eta pertsona bakarreko familia gisa bizi diren pertsonak ere sartzen dira definizio honetan. (Eustat, 2020)

Horrez gain, familia instituzioa dela ez dugu ahaztu behar eta horren baitan hasten eta hezten gara:

Familia erakunde unibertsal bat da, kultura guztietan dagoena. Oinarrizko talde honetan gure nortasun indibiduala eraikitzen dugu. Familia bateko kide izateak gizarte osoarekin lotzen gaitu, jaiotzen garen unetik bertatik. Halere, familia-arauak asko aldatzen dira gizarte batetik bestera. (Hiru.eus, 2020)

Historian zehar, antropologoek eta soziologoek familia-egituren bilakaerari eta funtzioei buruzko teoria ezberdinak garatu dituzte. Teoria horien arabera, gizarte primitiboetan bi edo hiru familia-nukleo zeuden, sarritan ahaidetasun-harremanen bidez lotuak, eta urtearen zati bat elkarrekin ematen zuten. Baina elikagai gutxi zegoen garaian sakabanatzen ziren. Familia unitate ekonomikoa zen: gizonek ehizatzen zuten bitartean, emakumeek elikagaiak bildu eta prestatzen zituzten eta haurrak zaintzen zituzten.

Erlijioak indar handia izan du familiaren eraikuntzan. XVI.mendera arte, erreforma protestantea onartu arte, ez zegoen familia eraikitzeke beste modurik. Gizon eta emakumearen arteko ezkontza erlijiosoak sortzen zuen lotura familiarra.

Erreforma protestantea eta gero, ezkontzaren izaera zibila nabarmendu zen loturei balio legislatiboa emanez.

Iraultza industrial eta gero, familian aldaketa gehiago nabaritzen hasi ziren. Lan antolamendua aldatzen da emakumea lan merkatuan txertatuz. Rolen moldaketaren ondorioz, umeen zainketa beste pertsona batzuetan delegatzen da, hala nola, aitona-amonetan, haurtzainetan edo haurtzaindegietan.

Beste faktore ebolutibo bat dibortzioa da. Dibortzioaren ondorioz, antolamendu familiarren forma berriak sortu ziren. Seme alaben zainketa partekatuta, berriro ezkontzearen ondorioz, aita eta amaordeak, anai-arrebaordeak...

Orduan, egun zer hartzen da familiazat? Errealitatea familia eredu mota anitzak daudela da. Aguadoren arabera (Aguado, 2010), hamahiru:

1. Familia hedatu edo konplexuak:

Familiaren barnean gune bat baino gehiago bereizten dira. Gero eta gutxiago diren arren, zenbait gunetan aurki daitezke gaur egun ere: etxerik gabeko bikote batzuek hasieran gurasoekin konpartitzen dute etxea; berezitu ondoren, bikotekide horietako bat askotan gurasoen etxera bueltatzen da hasieran. Espainian familia nukleo bi edo gehiago duten etxeak 1.912.800 dira, Euskal Herrian 50.700. (INE, 2019)

2. Familia nuklear funtzionala:

Gurasoek eta seme-alabek osatzen dute, biologikoak edota adoptatuak izan. Urte askotan eredu tradizionala izan da, baina bai kopurua, bai ezaugarriak ere aldatzen ari dira. Lehenago, familia tradizionalan, bikoteak ezkontua egon behar zuen. Seme-alabak biologikoak ziren eta ezkontuta egon eta gero edukitzen ziren. Rolei dagokienez, aitak etxetik kanpo lan egiten zuen dirua lortzeko; amak, berriz, seme-alaben eta etxearen ardurak hartzen zituen. Gaur egungo familia nuklearretan gurasoak askotan ez daude ezkontuta, eta erraz bereizten dira, familia berriak sortuz. Seme-alabak bide ezberdinetatik iristen dira (biologikoak, adoptatuak, aurreko harreman batekoak, eta abar). Eta rolen banaketa, asko aldatu da, emakumeak etxetik kanpo lan egitearen ondorioz, etxe eta zaintza arloko ardurak banatu direlako.

3. Gurasobakarreko familiak:

Guraso batek eta bere seme-alabek osatzen dute familia mota hau. Familia hauek hedatzearekin batera, gero eta anitzagoak dira. Espainian 4.452.500 eta Euskal Herrian 220.200 familia gurasobakar daude. Kasu honetan ere ondorengoak bide ezberdinetatik etor daitezke. Familia hauek betidanik izan dira, forma desberdinak hartuta, eta gehienetan gutxi errespetatuak: alarguntasunaren ondorioz, seme-alabak ezkontzatik kanpo izanik, bereizketen ondorioz, eta abar. Kasu gehienetan emakumea zen guraso bakarra. Horiei «familia hautsi edo desegin» deitzen zitzairen. Errealitatean, familia nuklear asko gurasobakarrekoak ziren, gurasoetako batek ardura osoa edo gehiena hartzen baitzuen. Gaur egun ere izatezko familia nuklear asko, eguneroko bizitzan gehienetan emakumeek ateratzen dituzte aurrera, batez ere umeen hezkuntzaz, zainketaz eta etxeko lanaz arduratzen direlako. (INE, 2019)

4. Izatezko bikoteak:

Azken urteotan ugaltu egin dira, eta horrekin batera balorazio sozial eta juridikoa irabazi dute. Horien ezaugarri nagusia da etxe ezberdinetan bizi arren, bikotekideek bikote iraunkorra osatzen dutela.

5. Seme-alabarik gabeko guneak:

Pertsona askok seme-alabarik ez izatea erabakitzen du. Egun handitzen ari da kopuru hau. Izan ere, seme-alabak haien gurasoen etxetik beranduago joaten dira eta ekonomikoki egonkortasunik ez dute. Emankortasun indizearen jaitsiera oso bizkorra gertatzen ari da Espainian 1975an 2,77koa zen eta 2017an 1,31koa. Euskal herriaren kasuan, emankortasun indizea 1,35koa da Espainiako mediatik pixka bat gaintetik. Hala ere, jaiotze kopuruak jaitsiera jasan du azken urteotan. Seme-alabarik gabeko 7.827.800 gune daude Espainian, horietako 395.600 Euskal Herrian. (INE, 2019)

6. Pertsona bakarreko guneak:

Dibortziatuak, berezituak, ezkongabeak eta alargunak sartzen dira. Kasu hauetan, gehienetan bakardadea aukeratua izan da. 2018ko datuak kontuan hartuta, Espainian pertsona bakarreko 4.732.400 gune daude horietako 250.400 Euskal Herrian. Dibortzioei dagokionez, egunean 288 ezkontza-hauste gertatzen direla Espainian kalkulatu da. (INE, 2019)

7. Familia berreraikiak:

Ezkonduak edo ezkongabeko bikoteak osatzen dituzte. Bikotekide batek, gutxienez, seme-alabaren bat izan zuen aldez aurretiko beste harremanen batean. Laburbilduz, familia-mota honetako partaideak aita, ama, anaiordeak, arrebaordeak edota anai-arrebak izan daitezke. Familia mota hau gero eta ugariagoa da eta gizonek dute joera gehiago osatzeko.

8. Adopzio-familiak:

Seme-alaba adoptatua daukatenak. Familia hauek hamaika tramite egin behar dituzte, adopzio prozesuak oso luzeak dira. Behin adopzioa eginda egokitzapen prozesua, aldi gogorra izaten da.

9. Harrera-familiak:

Familia hauek umeak bere gunean babesten dituzte, behin-behinekoz edo era iraunkorrean. Bitartean, Gizarte Zerbitzuek guraso biologikoek haien arazoak konpontzeko lanean aritzen dira.

10. Familia homoparentalak, sexu bereko pertsonen osatua:

Bi ama edo bi aita eta seme-alaba/k osatzen dute familia mota hau. Gizartea familia homoparentalak onartzeko asko aldatu behar den arren, aurrerapauso handiak eman dira eta familia eredu hau normalizatzen ari da. Familia hauek askotan ez daude ezkonduak, 2018. urtean Euskal herrian 7.320 ezkontza egon ziren eta horietako 91 sexu bereko pertsonen artean izan zen. (INE, 2018)

11. Ugalketa lagunduaren bidez jaiotako umeen familiak (intseminazioa, in vitro ernalketa):

Ugalketa arazoak dituzten guraso heterosexualak, guraso lesbianak edo ama ezkongabeak dira zerbitzu hauen bezeroak. Kasu hauetan, normalean, gurasoetako batek ez du seme-alabarekin lotura genetikorik eta beste pertsona ezezaguna izaten da. Egoera hori sarri askotan ezkutuan gordetzen saiatzen da eta seme-alabarekiko komunikazio arazoak eta tentsioak ekar ditzake. Kontrakoa gerta daiteke ere, seme-alabak izateko nahia oso handia denean, lotura genetikoak ez du harremana kaltetzen. Ume horiek ez dute arazo psikologiko espezifikorik eta, are gehiago, esan daiteke guraso horiek gehiago eragiten diotela askotan elkarri, beharbada asko itxaron ondoren inplikazioa nabarmenagoa delako.

12. Subrogazioaren bidez sortutako familiak:

Emakume batek beste pertsona batentzako seme-alabaren bat izaten duenean subrogazioa deritzogu. Hiru motatakoa izan daiteke:

- a) Subrogazio partziala: eskaera egiten duen aitaren hazia eta ordezeko amaren obulua erabiltzen dira.
- b) Osoko subrogazioa: bai obulua, bai hazia, eskaera egin duten gurasoenak dira.
- c) Emaileren bidez: emaileren bati sor zaio obulu edota hazia.

Gaur egun eredu horretan aurki daitekeen arazorik garrantzitsuenak esplotazioa da, presioen bidez edo arrazoi ekonomikoengatik.

13. Etorkinen familia aniztasuna:

Etorkinen kulturak, ohiturak, eta eskubide eta betebeharren banaketa harrigarriak eta ez-ohikoak izan daitezke harrerako kulturaren. Adibidez, Afrikan arrunta den poligamiaren kontzeptua hemen oinarrizko eskubideen kontra egon daiteke. Azken urteetako migrazio mugimenduek asko aldarazi dute familien konfigurazioa. Askotan gurasoak (biak edo horietako bat) bere herrialdetik atera dira bizimodu hobearen bila, seme-alabak familia zabalaren ardurapean utzita. Mugimendu horretan hasierako familia hautsi eta beste batzuk sortzen dira: gurasobakarrekoa, pertsona bakarrekoa... Horretaz gain, familia zabalak garrantzia har dezake aitona-amonak edota osaba-izebak bertan geratzen diren umeez arduratzen badira. Beraz, familia ereduak lotura estua dauka kultur identitatearekin.

Familia edonolako delako ere guztiok daukagu bat eta paper garrantzitsua dauka gure bizitzan. Familiak funtzio zehatz batzuk betetzen ditu. Lehenik eta behin, gizakiaren oinarrizko premiak asetzen ditu, jana, bizi gunea, osasuna, babesa, afektua eta ziurtasuna. Bigarrenik, ondorengo belaunaldiei ondarea uztea: hizkuntza bat eta komunikatzeko erak, ezagutzak, ohiturak, tradizioak, balioak, sentimenduak, jokabide arauak, sozializazio pautak, sinesmenak, etorkizunerako itxaropenak... Hirugarrenik, heziketa. Bizitzarako hezteak, hots eratzea, familiaren kideak pertsona produktiboak bihurtzea, bai ikasle edo langile bezala, eta komunitatearen kide bezala, bere bizitza guztian zehar.

3.2 Familia haur literaturan

Familiak presentzia handia dauka gure bizitzan eta hau literaturan sarritan islatzen da. Haur literatura arloan zentratuta, familiari askotan egiten zaio erreferentzia. Normalean haurrak dira haur literaturako protagonistak edo txikiak diren animalia pertsonifikatutak (*Zatoz, txantxangorria, zatoz!, Hartz aita etxera dator*). Protagonista hauek nahiz eta autonomia handiarekin irudikatu familiaren beharra dutela azaltzen da gehienetan (*Piztiak bizi diren lekuan, Ez da erraza, katagorri!*).

Baina aurrekora bueltatuz, familia eredu ezberdinetara, hauek haur literaturan daukaten presentzia murrizta da. Familia eredu islatuena familia nuklear funtzionala da, hau da, ama, aita eta seme-alaba/k eta batzuetan aiton-amonak edo izeba-osabak agertzen dira. Bazzochiren (2013: 60) hitzak berreskuratuz “La figura del anciano aparece a menudo en la literatura como encarnación de la voz del pasado o de la experiencia, de la sabiduría, los recuerdos y la memoria colectiva”. Egia da, seme-alabak dauzkaten familiak nagusitzen direla, Espainian 46.248.300 etxetatik 22.939.400 familia eredu honetakoak dira (%49,60). Euskal herriari dagokionez, 2.147.700 etxetatik 1.029.000 seme-alabak dauzkaten familiak osatzen dituzte (INE, 2019). Hala ere, familia nuklear funtzionala nagusitzea ez da aitzakia beste familia ereduak ez islatzeko, existitzen direlako. Ez dute onarpen sozial berdina eta ez dute eskubide berdinak izan. Gogoratu behar dugu ezkontza betirako konpromiso bezala kontsideratzen zela, eta frankismoa eta gero, dibortzioaren legea 1981ean onartu zela. Horrez gain, 2005era arte ez zen ezkontza homosexualaren legea onartu (BOE, 2020). Gizarteak familia eredu desberdinak normaltasunez onartzeko, egunerokotasunean adierazita ikusi behar ditu. Oso garrantzitsua da beti gaiaren trataera, eta familia eredu berrien kasuan ere. Familia eredu berriak islatzen dituen haur literatura eskaintza murriztaren barnean, ipuin batzuetan nahiz eta helburua familia eredu minoritarioari presentzia eman nahi, ez-ohikoa delaren etiketa jartzen zaiola nabarmentzen da. Honekin esan nahi dudana, adibidez, ipuin batean protagonistaren gurasoak aita eta ama direnean, ez dela azaltzen protagonistak aita bat eta ama bat dituela baizik eta zuzenean ekintzan agertu edo aipatzen direla. Protagonistaren gurasoak bi ama badira, aldiz, ez da berdina gertatzen eta gurasoak bi ama direla azpimarratzen da (*Aitorrek bi ama ditu*).

Begirada atzeraka bota eta familiak haur literaturan izan duen islapena aztertuko dugu. Ipuin tradizionalak begiratzen baditugu ez ditugu aurkituko bi ama dituen pertsonaia, baina bai amaordea daukan edo umezurtza den protagonista. Aitzitik, ipuin

tradizionaletan askotan, ume protagonista abandonatua izaten da, umezurtza da, aita edo ama ez dauka edo amaordea dauka.

Gurasoek umea/k abandonatzen duten ipuinak *Hansel eta Gretel* (1812) eta *Erpurutxo* ditugu. Protagonistak umezurtzak diren haur literaturari dagokionez, *Oliver Twist* (1839), *Peter Pan eta Wendy* (1904), *Tximuen Tarzan* (1912), *Heidi* (1880), *David Copperfield* (1849), *Tom Sawyer* (1878), *Oihaneko liburua* (1894), *OZeko aztia* (1900), *Anne of green gables* (1908), *Aladino*, *Pospoloen neskatxa* (1845)... Amaordea duten pertsonaien ipuinei begira, *Edurnezuri* (1812) eta *Errauskine* (1697) nabarmendu daitezke. Aita edo ama duten pertsonaien literaturan arreta jarriz, *Printzea eta Eskalea* (1881), *Pippi Långstrump* (1952) eta *Bambi* (1923) aurkitu ditut. Azken hauek, familia monoparentalak bezala kalifikatu genitzake. Familia monoparentalek presentzia handia izan dute beti, askotan emakumea zen familiaren ardura hartzen zuena, senarra hiltzen zelako. Orlandok (1997) seinatzen duen moduan, XVIII.mendearen amaieran eta XIX.mendearen hasieran, etxeko nagusi ziren emakumeen islapena nabarmentzen da literaturan, *Mujercitas* (1868) eleberrian, kasu. Eleberri honetan, aita sezezio gudan dago eta bueltatu egiten da, baina asko izan ziren bueltatu ez ziren gizonak eta alargun gelditu ziren emakumeak. *Huckleberry Finn* (1884) eleberriaren kasuan, aita da, protagonista, Huckleberry Finn, hezten duena. (1. eranskina)

Ipuin hauetan edo gehienetan protagonista, haur gizakia edo animalia dela, esperientzia oso gogorak bizitzen ditu bere inguruan dauden persona batzuk mina gauzatzen diotelako. Baina bere azkartasunari esker edo norbaiten laguntzari esker zailtasunetatik ateratzen da.

Nahiz eta esperientzia gogorak jasan esperantza daukate eta aurrera jarraitzen dute protagonista hauek.

Adibide guzti hauek ikusita, protagonista estilo hauek nagusitzearen arrazoia zein den jakitea ondo legoke. Psikologoek haurrak gurasoen, atxikimendu ziur baten beharra dutela azpimarratzen dute osasun psikologiko zein garapen egokia edukitzeko. John Bowlbyk gizakiaren behar primarioa bezala definitu zuen atxikimendua, bestearen interakzioaren beharra dauka gizakiak. Bowlbyk (1973: 31) hau esaten du:

Lo que por motivos de conveniencia denomino teoría del apego es una forma de conceptualizar la tendencia de los seres humanos a crear fuertes lazos afectivos con determinadas personas en particular y un intento de explicar la amplia variedad de formas de dolor emocional y trastornos de personalidad, tales como la ansiedad, la ira, la depresión y el alejamiento emocional, que se

producen como consecuencia de la separación indeseada y de la pérdida afectiva.

Intuizioz, ikusi eta bizi dugunagatik guzti hau baieztatu genezake, horregatik, ume umezurtzaren edo ume ez maitatuaren papera tragikoa bezala kalifikatu daiteke.

Bettelheim (1976) bezalako Freudianoek, maitagarri ipuinak eta bereziki ume abandonatuak edo umezurtzak protagonista bezala dituztenak, hazkuntzari datzekion arazo epidikoak zeharka ebatzea baimentzen dizkietela haurrei baieztatzen dute. Horretaz aparte, hauren autonomia kontzeptua berresten dutela diote.

Haur literaturaren aditu askok, aldiz, ez diote garrantzi berezirik eman eta tropo errepikakorrak bezala kalifikatu dituzte. Narratibarako garraio ziren eta XIX.mendeko erreforma sozialaren aurreko kritika (bizitza modernoko lazturak, kontsumismoa, langile alienazioa).

Beste aukera bat umezurtza jainkoa bilatzen duen gizaki baten arketipoa izatea litzateke. Umezurtzak zailtasun eta sufrimendu egoerak pasatzen ditu egoera tragiko baten ondorioz, baina bukaera zoriontsu bat espero du. Bibliaren kontakizun batean honakoa adierazten da: “azkenean, amaiera zoriontsua edukiko dute justuak, nahiz eta hara iristeko bidea tragikoa eta gogorra izan”. Honekin interpretatu daitekeena gertatutakoa dena delakoa izanda ere, Jainkoan sinesten dutenek onura jasoko dutela da. Horregatik, pentsaera modu hau izanda umezurtzek jarrera alaia, eta baikorra azaleratuko lukete.

Honen zergatia dena delakoa ere, datu bitxia da eta aldatu dena. Izan ere, gaur egungo haur literaturan ez da hain ohikoa protagonistak abandonatuak edo umezurtzak izatea.

Dena den, XIX. mendeko haur literaturan aita, ama eta seme-alabez osatutako familiak islatzen ziren. Orlandoren hitzetan “la literatura infantil del siglo XIX y de la primera mitad del actual, prefirió, como tendencia predominante, presentar en sus páginas ese canon de felicidad doméstica, de equilibrio capaz de sobreponerse ante todo tipo de contingencias” (Orlando, 1997: 1). Adibide moduan, *El pájaro azul* (1909) eta *Peter Pan eta Wendy* (1906) ditugu. *El pájaro azul*-en Tylytlek eta Mylytlek etxetik alde egingo dute baina bueltatuko dira eta bere gurasoekin etxe umil batean bizitzeagatik zein zorionekoak diren konturatuko dira. *Peter Pan eta Wendy* istorioaren kasuan, Wendy, John eta Michael anai-arrebak Darling senar-emaztearekin, bere gurasoekin,

zoriontsu bizi dira eta Peter Panekin (hau umezurtza da) Sekula Ez lurraldera joaten direnean, Wendyk eta Peter Panek ama eta aitaren rola hartuko dute.

XX. eta XXI. mendeko haur literaturan jartzen badugu arreta, familia eredu berriak gehiago islatzen direla ikus dezakegu. Hala nola, Christine Nöstinglerrek *¡Por favor, vuelve a casa!* (1974) eleberrian familia berreraikia plazaratzen du. Orlandok (1997) esaten duen moduan, Christine Nöstingler gataska familiarrak gehien tratatzen dituen autore garaikidetako bat da. Bikoteen apurketari buruz hitz egiten duten bi eleberri aipatu daitezke: *Un marido para mamá* (1972) eta *Una historia familiar* (1981). Roald Dahlek *Matilda*-n (1988) nukleo familiar berri baten sorkuntza erakusten du Matilda bere gurasoekin alde egin beharrean, Honey andereñoarekin gelditzen denean. Alonsoren (2013) hitzekin bat etorritz, zorionez familiari buruzko ikuspuntu berriaren zabalkuntza ahalbidetzen duten autoreak daude, Bronny Fallens idazlea eta Muntsa Vicente ilustratzailea, alegia. Bi hauek *My two super dads* (2011) eta *My super single mum* (2012) ipuinak argitaratu dituzte eta familia nuklear funtzionala familia eredu aukera bakarra ez dela frogatzen dute.

Hala ere, XX. eta XXI. mendeko haur literaturan familia nuklear funtzionalen presentzia nagusitzen da. Gallegok (2015) iradokitzen duen moduan, *Un elefante ocupa mucho espacio* liburuaren barnean *Sobre la falda* (1985) istorioan eta *La familia Delasoga* (1998) ipuinean familia nuklear funtzionalak balio tradizionalekin islatzen dira, aitak etxetik kanpo lan egiten du eta ama etxeko zereginez arduratzen da. Hamarkada honetako ipuina aipatuz, *Mi familia y yo* (2015) jarri genezake adibide moduan. Millaresek (2008) adierazten duen bezala, testu liburuetan eta irakasleentzako gida didaktikoetan ere, familia nuklear funtzionala da gehien islatzen den familia eredu. Autore honek 1996 eta 2003 urteen artean haur eskoletan, 3, 4 eta 5 urteen mailetan, gehien erabiltzen ziren argialetxeak aztertu zituen. Liburuetan agertzen ziren testuen analisisian %80an baino gehiago familia nuklearra agertzen zen, hau da, gainerako familia ereduaren presentzia %20a baino gutxiagokoa zen. Errealitatearekin alderatuz, Euskadin seme-alabak dituzten familia nuklearren portzentajea %34koa da. Beraz, familia aniztasunez jabetzea oztopatzen zutela testuek esan daiteke, Millaresen hitzetan “Entendemos que los materiales curriculares analizados no ayudan suficientemente a los niños de educación infantil a construir y asimilar el concepto actual de familia.” (Millares P., Martín C., 2008: 122).

Literatura liburuei dagokionez, egoera berdina da. Mínguez eta Olmosek (Mínguez, X. Olmos, N., 2013) familia eredu ezberdinak haur eta gazte literatura garaikidean presentziarik ez dutela baieztatzen dute. Hauek lagina bezala kritikak eta prentsa

espezializatuak aukeratutako liburu katalanak hartu zituzten. Liburu hauetan %46an familia tradizionalen agerpena zegoen. Mínguez eta Olmosen hitzetan:

Aunque las tramas rara vez demandan esta situación familiar para resultar creíbles o para que funcionen narrativamente [...] la apelación al mundo familiar tradicional es tan obsesiva que, incluso en los casos en que no resulta nada significativo, se suelen añadir las figuras paternas. (Mínguez, X. Olmos, N., 2013: 251)

Chocolate argitaletxeak Rosa Maestrori, www.masola.org (Madres Solas por Elección) web orriaren sortzaileari eta Familias en el mundo ipuin bildumaren autoreari, egindako elkarrizketa batean hurrengoia esaten zuen ama guraso bakarren inguruko literatura badagoen galdetu ziotenean:

No, muy poquita. Quizá es lógico porque hasta hace pocos años tener un hijo por reproducción asistida era algo que había que callar, por eso de los tabúes sociales. Ahora cada vez son más las personas que lo dicen sin problema alguno y posiblemente las madres solteras seamos las que menos incomodidad tengamos al hablar públicamente de nuestro modelo de familia, de nuestros tratamientos de reproducción asistida. Eso ha hecho que haya muy poco escrito. Pero ahora que empezamos a salir del armario, también vemos nuestras necesidades y una de ellas es esa, la de contarles a nuestros hijos la verdad de su origen. (Maestro, R., 2012: 1)

Familia nuklearra duten testu eta ipuin asko aurki daitezke, baina aldaketak ere badaude, esaterako, aitek eta amek, biek, etxetik kanpo lan egiten dutela edo aitek umeen ardura hartzen dutela (*La familia UF*).

4. HELBURUAK

Ikerketa honek badu helburu nagusi bat, eta helburu hori lortze edo argitze aldera badira ere beste batzuk, espezifikokoak, kontuan izateko modukoak. Beraz, aurretik esan dugun bezala, gaur egun familiaren irudia haur literaturan aztertzeo, lan honetan honako hauek dira helburuak:

Helburu nagusia:

- Familia ereduak haur literaturan duten islapena aztertzea

Helburu espezifikoak:

- Familia kontzeptua definitzea
- Familia eredu desberdinak zehaztu eta definitzea
- Familia ereduaren bilakaera aztertzea
- Gaur egun dauden familia ereduaren datuak islatzea
- Familiaren presentzia daukaten ipuinen azterketa egitea
- Nagusitzen ez diren familia ereduaren trataera nolakoa den ipuinetan aztertzea
- Familia eredu desberdinen inguruan hitz egiten duten ipuinen zerrenda sortzea
- Analisiaren emaitzetatik abiatuz, konklusio batzuk adieraztea

Lan honen erabilgarritasunari begira, zertarako den galderari erantzunez, bi erantzun nagusi daude: familia kontzeptuaren eta ereduaren xehetasunak argitzeko eta hauek haur literaturan duten doitasuna ikusteko. Hau da, familiaren ikuspuntutik gizartearen errealitatea haur literaturan plazaratzen den ikusteko baliagarria izango da.

Hipotesiak:

1. Familia eboluzionatu da eta gaur egun familia mota desberdinak agertzen dira haur literaturan
2. Familia mota guztiek ez dute onarpen sozial berdina haur literaturan
3. Haur literaturan familiaren presentzia handia da
4. Haur literaturan gehien islatzen den familia ereduak, nuklear funtzionala da
5. Haur literaturan familia eredu minoritarioak islatzen direnean, gai nagusia familiaren ezaugarriak azaltzean datza

5. METODOA

Ikerketa hau egiteko, azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin da. Aipaturiko helburua lortzeko, eta marko teorikotik abiatuta, hainbat liburu aztertu ziren guk esaniko hipotesiak betetzen ziren ala ez egiaztatzeko. Beraz, lehenik eta behin azterketa fitxa bi diseinatu zen, eta ondoren corpuseko obrak irakurri, aztertu eta emaitzak atera ziren. (2.eranskina)

Corpusa.

Aztertu diren liburuen corpusa bi multzotan bereiztu da, alde batetik zoriz aukeratutako 40 liburu, eta bestetik, aztertzen ari garen gaia espezifikoki lantzen dituzten liburuak. (3.eranskina)

Haur liburu hauen bilaketa eta irakurketa sakona, online egin da. Online egin izan da bakarrik, Covid-19 birusa dela eta, fisikoki baliabideak eskuratzea ezinezkoa izan delako. Corpusa aurrera eramateko iturri ezberdinak erabili dira. Liburu orokorren zerrenda osatzeko youtuben Cuentacuentos Beatriz Montero izeneko kanaletik (Montero, 2020) eta eLiburutegitik (eLiburutegia, 2020) 40 liburu aukeratu dira zoriz, haur literatura irizpidea betetzen zutela kontuan izanik. Hauek familia gaiari buruz hitz egiten zuten edo familiaren presentzia bazegoen aztertuz irakurri, begiratu eta entzun dira. Irakurketa eginda, familia eredu desberdinek zein nolako islapena duten inguruko emaitzak azaldu dira.

Liburu espezifikoen zerrenda osatzeko Biblioteca de Colores bloga oso lagungarria izan da aniztasun familiarrari buruzko izenburuak lortzeko. Horrez gain, googleen egindako bilaketa eta youtuben Cuentacuentos Beatriz Montero izeneko kanala ezinbestekoak izan dira. Liburu espezifikoen zerrenda osatzeko, familia eredu desberdinak azaltzen diren edo familia eredu desberdinak gai bezala duten ipuinen hautaketa egin da hauei ematen zaien trataeran atentzioa jarriz eta amaiera motan begirada jarriz.

Azterketa fitxak.

Mínguez eta Olmosen (Mínguez, X. Olmos, N., 2013) ikerketaren taulak hartu dira oinarri bezala, azterketa fitxa propioak eratzeko. Liburuen corpus-a aztertzeko bi fitxa sortu dira, liburu orokorren fitxa eta liburu espezifikoen. Bi egin dira orokorrean familia mota desberdinen islapena ikusteko eta familia nuklear funtzionalaren nagusitasuna baieztatzeko eta espezifikoki nagusitzen ez diren familia motei ipuinetan ematen zaien


trataera ikusteko. Liburu orokorren fitxan, liburuen izenburua eta familia mota adierazteko laukiak bereiztu dira. Liburu espezifikoaren fitxan izenburuaz eta familia motaz gainera, amaiera mota adierazteko laukia txertatu da.

Liburuak irakurri eta bakoitzaren fitxa bete ostean emaitzak aztertu dira hasieran aipaturiko hipotesiak egiaztatu diren ala ez ikusteko.


6. EMAITZAK

6.1 Liburu orokorrak

Liburuen zerrenda sortu, ipuin bakoitza irakurri eta aztertu ondoren, datu interesgarriak atera dira. Ipuinetan gehien nagusitzen diren familia ereduak, nuklear funtzionala eta gurasobakarra dira. Zoriz aukeratutako liburuen artean, 40 ipuin izan direla, 18 istorioetan familia nuklear funtzionalaren presentzia dago eta 9tan familia gurasobakarrena. Gainerako 15 ipuinetan, lau ipuinetan familia mota hedatua da, batean berreraikia, bostetan ez da argi geratzen eta hirutan ez da familiarik agertzen.



Datu hauek marko teorikoan islatu den errealitatearekin alderatuz, Espainian seme-alabak dituzten familiak %50a osatzen dute, nagusitzen den familia mota da eta liburuen zerrendan baita. Gainerakoari dagokionez, errealitatearekin desberdintasunak daude. Familia gurasobakarren kasuan, %10eko portzentajea dagokie, liburu zerrenda honetan %22a. Familia hedatuak %4a dira, ipuin zerrenda honetan %10a. Pertsona bakarreko guneak edo bakarrik edo familia ez den pertsonekin bizi direnak %12a osatzen dute, nukleo familiarraz aparte beste pertsona batzuekin batera bizi direnak %7a eta seme-alabarik gabeko guneak % 17a baina ipuin zerrenda honetan ez dira agertu. (INE, 2018)



Aipatu beharrekoa da, adopzio familien, familia berreraikien eta familia homoparentalen datu zehatzik ez dagoela, seme-alabak dituzten familien portzentajearen barnean, %50an sartzen dira, beraz, ezin da zehaztasunez familia mota hauen datuak islatu. Dena den, ipuin orokorren zerrenda honetan ez da familia homoparentalik agertu, ez adopzio familiarik, ez izatezko bikoterik, ez seme-alabarik gabeko guneak, ez pertsona bakarreko guneak eta ez harrera-familiarik. Azken hauek ez azaltzearen arrazoia, ipuin guztietan protagonista haurra/k edo animalia kumea/k izatea da.

Familia nuklear funtzionala agertzen den ipuinen 18 izenburuak hurrengoak dira:

- *Cornelio, Pancho, Simón y yo*
- *Érase una vez en el parque*
- *Lágrimas bajo la cama*
- *Por si no te lo he dicho*
- *Amarillo y redondo*
- *El libro apestoso*
- *Meriendatzera etorri zen tigre*
- *Ha sido el pequeño monstruo*
- *Federico y Federico*
- *Secreto de familia*
- *Nunca jamás tomaré tomates*
- *El rey Hugo y el dragón*
- *Mamá al rescate*

- *¡Hola! ¡Hola!*
- *Little pea*
- *El monstruo amarillo*
- *Me comería un niño*
- *Olivia recibe la navidad*

Zerrenda honen barnean, ipuin batzuetan familiaren presentzia nabaria da eta beste batzuetan ez hainbeste, honen berri irudi bati edo aipamen bati esker daukagu. Horrez gain, familiaren paper, rol eta jokaera desberdinak islatzen dira.

Ipuin batzuetan, oso argi geratzen da familia nuklear funtzionala dela, esaterako, *Cornelio, Pancho, Simón y yo* eta *Érase una vez en el parque* ipuinetan. *Cornelio, Pancho, Simón y yo* istorioan lehenengo parragrafoan Lupek, neska protagonistak, non bizi den eta norekin aurkezten digu, bere animaliekin eta aita eta amarekin, alegia. *Érase una vez en el parque*-n, hasieratik dakigu Grígor, ume protagonista, bere aita eta amarekin bizi dela baina berak parkean bizitzea nahiago lukeela. Horrelako beste hainbat adibide aurkitzen ditugu beste ipuin batzuetan, hala nola, *Secreto de familia*-n protagonista hasieran bere amarekin gosaltzen ari da eta bere aita eta neba lotan daudela argitzen du edo *Olivia recibe la navidad* ipuinean, Oliviak bera eta bere familiak (aita, ama eta neba) gabonetako prestakuntzetan dabilatzatela adierazten duela.



Olivia recibe la navidad

Beste batzuetan badakigu protagonistak aita eta ama dituela baina hauek ez dute presentzia handirik istorioan. *Amarillo y redondo*, *Nunca jamás tomaré tomates* eta *El libro apestoso* ipuinetan, hori gertatzen da. *Amarillo y redondo* ipuinean, Matías, ume protagonista, kanpamentu batera doa eta bere gurasoek autobusera eramaten dutenean soilik, agertzen dira irudian. *Nunca jamás tomaré tomates* ipuinaren kasuan, Juan eta Tolola anai-arrebak dira protagonistak. Juan seme nagusia da eta aitak eta amak Tololaz arduratzea eskatzen diote batzuetan, gurasoei buruz ez dugu informazio gehiagorik istorioan. *El libro apestoso* ipuinaren kasuan, kontakizunean aita eta ama aipatzen ditu protagonistak eta irudi bategatik arreba duela ondorioztatu dezakegu.

Zenbait ipuinetan, nahiz eta ama eta aita agertu, amak protagonismo handiagoa dauka. Ama etxeko zereginez eta seme-alaben zainketaz arduratzen dela eta aitak etxetik kanpo lan egiten duela ikusten da. Honen adibide, *Meriendatzera etorri zen tigrea* eta *Mamá al rescate* dira. *Meriendatzera etorri zen tigrea*-ren pasarte batean amak tigreak dena jan duenez, aitaren afarirako ez dakiela zer egin esaten du. *Mamá al rescate* istorioaren kasuan amak enplegu bat topatu du lau astetarako eta Guille, Lucía eta María zaintzeko pertsona bat behar du. Aitak lan egiten duenez, umezaintzaile bat kontratatzen du. Gauean lanetik bueltatzen denean desastre hutsa topatzen du eta nahastea konpondu behar du beti, aita ez da gehiago aipatzen. Adibide hau etxe askotako errealitatea da, emakumea da etxearen eta seme-alaben ardura hartzen duena, marko teorikoan aipatu bezala, familia nuklear asko azken finean gurasobakarrekoak dira, gurasoetako batek ardura osoa edo gehiena hartzen baitu.



Meriendatzera etorri zen tigrea

Anai-arreben arteko harremana tratatzen duten ipuinak aurkitzen ditugu, *Por si no te lo he dicho* eta *Ha sido el pequeño monstruo*, alegia. Bietan, anai-arreba handiak anai-arreba txikiarengan duen jeloskortasuna erakusten da. *Por si no te lo he dicho* istorioan gurasoek ez dute presentzia handirik, irudi baten bitartez dakigu aita eta ama direla, *Ha sido el pequeño monstruo*-n, ordea, aita eta amaren interbentzioak daude.

Anai-arrebak aipatzen diren ipuin guztietan hirutan (*Mamá al rescate*, *La peor señora del mundo*, *Otso bihozbera*) izan ezik, bi anai-arreba dira eta seme-alabak agertzen diren gainerakoetan, bakarrak dira. Hau da, seme-alaba bat edo bi izatea ohikoena dela irakur dezakegu. Horrela dela baieztatu dezakegu, izan ere, marko teorikoan adierazi den bezala 2017an emankortasunaren indizea 1,31koa zen Espainian.

Hainbat istorioetan umeez haien gurasoen atentzioa eta beharra dutela azaltzen da. John Bowlbyren hitzak berriro erabiliz, interakzioaren beharra dauka gizakiak eta atxikimendua behar primarioa da. (Bowlby, 1973)

El rey Hugo y el Dragón ipuinean ondo ikusten da nola umeez gurasoen beharra daukaten. Hugo oso ausarta da eta primeran pasatzen du erraldoien kontra borrokatzen bere laguna Ivanekin eta bere anaia Marcosekin. Baina bakarrik gelditzean eta gaua heltzean, zarata asko entzuten dira eta aita eta amari laguntza eskatzen die oihuka. *Lágrimas bajo la cama* istorioan, umeez haien gurasoen onespeneraren beharra dutela azaltzen da. Simonek negar asko egiten zuen eta denek, aita, ama, amona, aitona, irakaslea, “Simón eres un llorón” esaten zioten. Malkoak gordetzea erabaki zuen arte, negarra ez zuela erakusten eta bere aitak esan ziola “¡Muy bien, Simón, eres un hombre hecho y derecho!”. Komentario honekin, gizonek negar egitean hauskortasuna erakusten dutela adierazten da eta rol hori ez doala irudi maskulinoarekin. Txikitatik, estereotipo sozialak barneratzen dituzte umeez.

¡Hola! ¡Hola! ipuinean, Lidia, protagonista, bere familiarekin, bere aita, ama eta nebarekin, harremana izaten saiatzen da baina guztiak ordenagailuarekin, mugikorarekin edo tablet-arekin oso okupatuta daude.



Hola, Mamá.



Hola.

Lágrimas bajo la cama

¡Hola! ¡Hola!

Bi ipuinen kasuan, guraso eta semearen arteko elkarrizketez osatuta daude, elkarrizketa horiek kutsu hezitzailea daukate. *Little pea* eta *Me comería un niño* ipuinetan, aita zein ama bere semearengan adi daude, ondo jaten dutela ziurtatzeko.

Aitonaren presentzia dago *Federico y Federico* ipuinean, honetan aitona eta biloba baten arteko harremana ikusten da, Federico aitonaren eta Federico bilobaren artekoa. Federico txikiaren gurasoek nork zaintzen duen nor galdetzen diote bere buruari. Bazzochiren esanak (2013: 60) berriro erabiliz, “La figura del anciano (...) en la literatura infantil se convierte en el compañero de juegos del niño, el que le ayuda a crecer y a formarse como individuo”.

El monstruo amarillo ipuinean, seme-alabak etxetik joan behar direla noizbait erakusten da.

Familia gurasobakarra agertzen den ipuinen 9 izenburuak hauek dira:

- *Copito y el lobo*
- *Dulce como un te quiero*
- *¡No, David!*
- *17 things I'm not allowed to do anymore*
- *Arándanos para sal*
- *Noel Gris*
- *La peor señora del mundo*
- *No te vayas*
- *No te rías Pepe*

Bederatzi ipuin hauetatik, zazpi ipuinetan ama da gurasobakarra eta bi ipuinetan, aita. Errealitatean horrela gertatzen da ere, %82,45ean emakume gurasobakarrak nagusitzen dira eta %17,55a gizonei dagokio. (INE, 2019)

Aita agertzen den ipuinak aztertuz hasiko gara, *Dulce como un te quiero* eta *No te vayas* ipuinetatik, hain zuzen. *Dulce como un te quiero* ipuinean ez da behin ere aita hitza aipatzen, protagonistak bi hartz dira, hartz handia eta hartz txikia, eta ipuinean zehar horrela izendatzen dira beti: “El oso grandote lo alzó alto, muy alto entre las ramas frondosas, pero ¡ay! el oso pequeño desapareció en el interior de un agujero...”. Gaztelaniaz artikuloek generoa bereizten dutenez, eta kontakizunean azaltzen diren egoerengatik hartzak aita eta semea direla susmatzen da. *No te vayas* albumean aita azkenengo orrialdetan agertzen da, baina aita eta alabaren arteko harremana ez da ipuinaren gai nagusia, baizik eta protagonistak, Catalinak, agurrak ez dituela gustuko.

Ama agertzen den ipuinetan, ama eta seme-alaben arteko harremana gehiago islatzen da, esaterako, umek amarengandik jasotzen duten babes, errietak, aginduak eta amodioa islatzen dira. *Copito y el lobo*-n Copito arkumetxoa ikaratuta dagoenean bere ama oihuka deitzen duela ikus dezakegu. *¡No, David!* eta *17 things I'm not allowed to do anymore* ipuinetan protagonistek bihurrikeriak egiten dituzte eta haien amek debeketzen dizkiete. *Arándonos para sal* eta *No te rías Pepe* ipuinetan agertzen diren amak haien seme-alabei zerbait erakutsi nahi diete. *Arándonos para sal* ipuinaren kasuan, ahabiak hartzera eta *No te rías Pepe* ipuinean hildakoarena egitera. Marko teorikoan familia motak deskribatzean aipatu bezala, tradizioz emakumeak zainketa rol hori barneratu izan du eta gaur ere erreproduzitzen jarraitzen da.

Amak rol hau betetzen ez duen ipuina badago, *La peor señora del mundo* izenekoa. Honetan, ama da protagonista, bost seme dituen emakume oso gaiztoa. Bere semeei begietan limoi zukua botatzen die eta gosaltzeko txakur janaria ematen die.

Azkenik, *Noel Gris* ipuinean, Noelek, protagonistak, ama eta arreba dituela badakigu baina amak ez du protagonismorik istorioan.

Familia motak deskribatu direnean Aguadok (Aguado, 2010) emandako informazioa baliatuz familia gurasobakarra izatearen zergati desberdinak egon daitezkeela aipatu da: alarguntasuna, ezkontzatik, bikotetik kanpo seme-alabak izatea, dibortzioa, gurasobartasun aukeratua... Ipuin hauen kasuan, ez daukagu honi buruzko informaziorik, amak eta aitak zuzenean ekintzan aipatzen dira.

Familia hedatua islatzen duten ipuinen 4 izenburuak honakoak dira:

- *El abuelo Tomás*
- *Otso Bihozbera*
- *Tino el cochino*
- *¡No más besos!*

El abuelo Tomás ipuinean Petra eta Jan bere gurasoekin eta aitona Tomasekin bizi dira. Bere gurasoak oso okupatuta daude beti eta Tomasekin jolastu eta primeran pasatzen dute. Baina egun batean, aitona zahar-egoitza batera joatera behartuta ikusten da Petra eta Janen borondatearen kontra. Ipuinak kutsu aldarrikatzailea dauka, aiton-amonak zahar-egoitzetara bidaltzearen kontrakoa.

Otso Bihozbera istorioan Lucas, otso protagonista, bere etxetik joaten da, independizatzeko da eta bere familia agurtzen duenean, etxe berdinean bere aiton-amonekin, aita eta amarekin eta bere anaiekin bizi zela dakigu.

Tino el cochino ipuina, gai nagusi bezala Tinok egiten dituen txerrikeriak ditu baina txerrikeriak egiten dituen bere familiako kideak errieta botatzen diote eta horrela bere familia ezagutzen joaten gara, ama, aita, arreba eta amona, alegia.

¡No más besos! istorioan, Momo tximinoak muxuak ez zaizkiola gustatzen kontatzen digu eta berarekin bizi den familiari, amari, aitari, amonari, lehengusuei eta izebei muxu gehiagorik ez dituela nahi esan die.



¡No más besos!

Familia berreraikia agertzen da *Un papá a la medida* ipuinean. Neska protagonistak bere ama aurkezten digu eta aitari ez duela komentatzen du, zein motatako aita behar duen adieraziz. Amak eta berak egunkarian iragarki bat jartzen dute aita bat bilatzeko baldintza batzuk zehaztuz eta azkenean, aita berriak ez ditu baldintza horiek betetzen baina beste bertute batzuk ditu.

Nahiz eta liburu orokorren zerrendan bakarra agertu familia mota hau gero eta ugariagoa da. (Aguado, 2010)

Bost liburuetan ez da argi geratzen familia mota, hauetan zehazki:


- *Elmer*
- *Abrázame*
- *Coco y Pío*
- *El plan beee*
- *Los cocodrilos copiones*

Elmer, *El plan beee* eta *Los cocodrilos copiones* ipuinetan ez da argi geratzen protagonistek aita, ama, anai-arrebak edo zer duten. Ipuin hauen protagonistak animaliak dira elefante bat, ardi bat eta krokodilo bat, konkretuki. Hirurak bere taldearekin bizi dira, baina ez dira harreman familiarrak zehazten.

Coco y Pío ipuinean kasu berezi bat azaltzen da. Coco krokodiloa eta Pío txoria aldi berean jaio ziren, haien arrautzak bata bestearen ondoan zeuden abandonatutak eta elkarrekin anai bezala hazi ziren. Bakoitzak bere taldea topatzen duenean ez dira moldatzen, jada familia bat zuten eraikia haien artean. Haien artean adoptatu zirela esan dezakegu.

Abrázame ipuinean protagonista Felipe cactus-a da. Felipek irudi ona ematea gustatzen zitzaion familia baten ondorengoa dela kontatzen du eta bere familiak cactus on bat izateko argibideak ematen dizkiola, baina ez ditu familiako kideak zehazten.

Dena den, ipuin hauetan nahiz eta familia mota zein den zehaztasunez ez jakin pertsonaia hauek amodioaren, babesaren eta sozializazioaren beharra dutela adierazten da, azken finean familia adeitsu baten beharra ("Recordaba las charlas que tenían al atardecer (...)").



El plan beee

